

**DK202406 DEKRETUA – DOBERA EUSKARA ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ONARTZEA**

Gaurko datarekin Auzo alkateak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA: Ereñotzun, 2024ko otsailaren 14an

Dobera Euskara Elkartearen zuzen zuzeneko helburua da, Urumeako Kronikaren bitartez herriko eta bailarako herritar guztiei informazio zerbitzua eskaintzea. Herrian eta bailaran bertan gertatzen dena jakiteko, eta alderantziz, herritarrek informazioa eman nahi badute, plataforma bat eskaintzea da helburu nagusia.

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren xedea, besteen artean, jardun hauek sustatzea ere bada. Interes orokorrekoa da elkarteari diru-laguntza ematea. Elkartea, irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta xede hori egiten diharduen elkarre bakarra da.

2024ko Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko aurrekontuetan Dobera Euskara Elkartearen aldeko diru-laguntza izenduna jasotzen da.

Diru-laguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan jasota dago.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzaren hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Dobera Euskara Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 3.000 euroko diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren laugarren klausulan xedatutakoa betez, partida honen kargura: 01.481.01.334.00 Dirulaguntza zuzenak 2024. AD-21.

Hirugarrena.- Ordainketa, hitzarmenaren laugarren klausulan jasota bezala egitea: diru-laguntzaren %60 (1.800 €) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %40 (1.200 €) justifikazioa aurkeztean.

Olatz Juantorena Aizpurua auzo alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, udal idazkariordearen delegatua naizen honek ziurtatu dut.

Auzo Alkatea

Fede ematen dut:
Udal Idazkariordearen delegatua